Idiazabalgo
Udala

OHIKO UDALBATZARRA

2026ko martxoaren 26.

LEKUA: Batzar Aretoa

LEHENDAKARIA: Iñaki Alberdi Iparragirre (EH BILDU)

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Iñaki Arriaran Murgiondo (EH BILDU)

José Agustín Urteaga Usandizaga (EH BILDU)

Ioana Prados Alustiza (EH BILDU)

Eunate Elio Cemborain (EH BILDU)

Aitziber Aizpuru Ceberio (IZALBERRI)

Patxi Mujika Olaizola (IZALBERRI)

Mikel Mujika Romero (IZALBERRI)

BERTARATU GABEKO ZINEGOTZIAK

Jone Ormazabal Zabaleta (EH BILDU)

Aimar Lizarazu Iztueta (EH BILDU)

Jaione Munarriz Aramendi (EH BILDU)

IDAZKARIA: Xabier Otaegi Leunda

DEIALDIA: Lehenengoa

ORDUA: Hasiera: 18:00etan

Gai zerrenda:

1.- 2025-12-22KO OSOKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Udalbatzak, aho batez, 2025-12-22ko akta onartzea erabaki du.

2.- DEKRETUEN BERRI EMATEA.

2025/645-2025/681 eta 2026/1-2026/195 zenbaki bitarteko dekretuen berri eman da, eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Idiazabalgo Udala

3.- FAKTUREN BERRI EMATEA.

Faktura zerrenden berri eman da, eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

4.- IDIAZABALGO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN ALDAKETA PUNTUALA, GU 07/08 EREMUA. HASIERAKO ONARPENA.

Kontuan hartuta GU.07/08 Sektoreari (OG) dagokion HAPOren Aldaketa Puntuala behar bezala kokatzen dela Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 83. eta 94. artikuluetan aurreikusitako araubide juridikoan, udalerriaren egitura orokorrari eragiten ez dion plangintza orokorraren aldaketa baita, eta xedetzat baitu indarrean dagoen HAPOan jada aurreikusitako lurzoru urbanizagarri sektorizatuaren sektore baten antolamendua zehaztea.

Kontuan hartuta Hirigintza Arau Partikular berrian ezarritako antolamendua ez dagoela kontraesanean HAPOn onartutako egiturazko zehaztapenekin; izan ere, plangintza orokorrean garapen-plangintzako tresna bati berariaz lotuta zeudenak garatzen eta zehazten dituela, jatorrian onartutako Arau Partikularraren D atalean hitzez hitz jasotzen den bezala. Bertan adierazten zen antolamendu xehatua Plan Partzialaren bidez ezarri behar zela.

Kontuan hartua Sektorearen azalera eta hirigintza-eraikigarritasuna onetsitako HAPOn jasotako balioekin alderatuta handitzea justifikatuta dagoela Aldaketa Puntualaren dokumentazioan, eremuaren birdefinizio doituago batetik eta aurreikusitako industria-erabilerarekin koherentea den antolamendu xehatu bat hartzetik eratortzen baita, horrek lurralde-ereduaren funtsezko aldaketarik edo legez eska daitezkeen hirigintza-estandarren murrizketarik eragin gabe.

Kontuan hartua aurreikusitako eraikigarritasun osoak eta horren ondoriozko okupazioak bete egiten dutela 2/2006 Legearen 77. artikuluan eta hirigintza-estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuan xedatutakoa, eta behar bezala egiaztatzen dela zuzkidura publikoetarako, espazio libreetarako eta berdeguneetarako gutxieneko lurzoru-erreserbak betetzen direla, bai eta aplikatzekoa den sektore- eta hirigintza-araudiak eskatzen dituen aparkaleku-zuzkidurak ere.

Kontuan hartuta udal idazkariak eta arkitektoak egindako txostenak.

Ikusirik hasierako onarpena Udalbatzaren osoko bilkurari dagokiola, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90. eta 104. artikuluen arabera, Lurraldearen Antolamendurako Planak eta Hirigintza Antolamendurako Tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 27. eta 36. artikuluen arabera, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) eta 47.2.II) artikuluen arabera, udalbatzak, gehiengo osoz, aho batez, erabaki du:

Lehenengo.- GU 07/08 eremuan Idiazabalgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aldaketa Puntualari hasierako onespena ematea.

Bigarren.- Jendaurrean jartzea Plan Orokorraren aldaketaren hasierako onarpena, berrogeita bost eguneko epean, Udaleko iragarki-taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurraldean hedapen handiena duen egunkarian iragarkia jarrita.

Idiazabalgo
Udala

Epe horretan, espedientea aztertu nahi duen edozeinen eskura egongo da, egoki iritzitako alegazioak aurkez ditzan. Era berean, eta informazio hutserako, Udalaren web orrian egongo da eskuragarri.

Hirugarren.- Hasierako onarpena arlokako eskumenak dituzten administrazio publikoei jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta txostena egin dezaten.

Laugarren.- Bi urteko epean etetea edonolako onespenik, baimenik eta lizentziarik ematea aldaketaren eremu horretan. Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 85. artikuluak xedatutakoaren arabera

5.- (OB)-EZ.01/ (OB) EZ.02 HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA. BEHIN BEHINEKO ONARPENA EMATEA.

Kontuan hartuta Plan Berezia Idiazabalgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorrarekin (2022) guztiz bat datorrela, izan ere (OB) EZ.01 eta (OB) EZ.02 eremuetako antolamendu xehatuan doikuntzak baino ez ditu egiten, lurzoruaren sailkapena, B.10 industria-kalifikazio globala, aurreikusitako jarduketa-sistema eta plan orokorrak zehaztutako lurralde-egitura orokorra eta organikoa aldatu gabe, eta, halaber, dotazio-estandarrak eta udalerriko lurralde-ereduarekiko koherentzia mantenduz.

Kontuan hartuta dokumentua bat datorrela 2/2006 Legearekin, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, 6/2025 Legeak egindako aldaketaren ondorengo idazketan; bai Plan Bereziaren edukiari eta irismenari dagokienez, bai Jarduketa Urbanizatzailearen Programari, Jarduketa Integratuaren mugaketari, itun bidezko exekuzio-sistemari, onuren eta kargen banaketa bidezkoari eta aprobetxamendu urbanistikoan udalaren parte-hartzeari dagokienez ere; eta ez dela hautematen lurzoru urbano ez finkatuari aplikatu beharreko araubide juridikoaren urraketarik, ezta arau-erreformak indartutako lurzoruaren erabileraren jasangarritasun eta arrazionaltasun printzipioen kontrako jarduketarik ere.

Kontuan hartuta Ingurumen Txosten Estrategikoa aldekoa dela, eta bertan zehazten dela Plan Berezia ez dela ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren mende jarri behar, ez baita aurreikusten ingurumenari eragin kaltegarri nabarmenik sortuko duenik, betiere txostenean ezarritako baldintzak betetzen badira; baldintza horiek proposatutako antolamenduan integratu dira eta exekuzio-fasean bete beharko dira.

Kontuan hartuta sektore-txostenak aldekoak direla, errepide, ur eta jabari publiko hidraulikoaren arloan eskumena duten erakundeek emanak, eta ez dutela ezartzen proposatutako antolamenduarekin bateraezina den zehaztapenik edo tresnaren edukia funtsean aldatzen duen baldintzarik, egiaztatuta geratzen delarik mota honetako jarduketetan eskatzen den administrazio arteko koordinazio egokia.

Kontuan hartuta espedienteko dokumentazioa nahikoa eta egokia dela, memoria justifikatiboa, arau urbanistikoak, jarduketa urbanizatzailearen programa, bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterketa, laburpen exekutiboa, ordenazio-planoak, zarataren eraginaren azterketa eta ingurumen dokumentu estrategikoa barne hartzen dituela, eta aplikatu beharreko araudi urbanistiko eta ingurumenekoan ezarritako

Idiazabalgo Udala

betekizunak betetzen dituela, tresnaren balorazio tekniko zein juridiko osoa egiteko aukera emanez.

Kontuan hartuta udal idazkariak eta arkitektoak egindako txostenak, dokumentazioa, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95 eta 97 artikuluen eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikuluen arabera, udalbatzak, aho batez, erabaki du:

Lehenengo.-Idiazabalgo (OB)EZ.01/(OB)EZ.02 eremuetako Hiri Antolamenduko Plan Berezia behin-behinean onartzea.

Bigarren.-Gipuzkoako Foru Aldundiari helaraztea, behin betiko onar dezan

6.- GALDERAK ETA ESKAERAK.

Ez dago.

Seiak eta bederatzi minutu direnean udalbatza bukatu egin da

XABIER OTAEGUI LEUNDA - 34090688L
Digitalki sinatuta norengandik: XABIER OTAEGUI LEUNDA - 34090688L
Data: 2026.05.04 12:16:52 +02'00'

ALBERDI IPARRAGUIRRE IÑAKI - 72456101Y
Digitalki sinatuta norengandik: ALBERDI IPARRAGUIRRE IÑAKI - 72456101Y
Data: 2026.05.06 11:53:05 +02'00'